



# Ihesi

TESTUA ETA ARGAZKIAK:  
JULEN ZABALA

Garai batean, euskararen hedapenak gaurko espainiar Errioxako eskualde batzuk hartzen zituen bere baitan. Ibilaldi honetan, euskarak toponimian utzitako arrastoei segituko diegu, bidenabar paisaia ederrez gozatuz.

Errioxa (Espainia)

## Euskal izenen peskizian

Historialariei jarraituz –J. J. B. Merino Urrutia, Hendrike Knörr edo David Peterson besteak beste–, zilegi da pentsatzea espainiar Errioxa osoa ez zutela zeltek hartu eta, mendi aldean batik bat, aurreko kulturaren arrastokak gorde zirela. Horren adibide liraterke I. mendeko hilarri batzuetan topatutako *Arguisar* eta bestelako euskal jatorriko hitzak, Logroñoko Laminiturri elkartearen arabera.

Musulmanen jazarpenetik askatu ondoren, Nafarroako erreinuari atxiki eta izandako birpopulaketak berpiztu zuen euskara gaurko Errioxara. Donemiliaga Kukula herria horren erakusle garbia da. Leku zoragarria izateaz gain, gure hizkuntzaren hedapenaren lehen argibideak gordetzen ditu. Ezagunena izan arren, ez da ordea bakarra, izan ere, Errioxa aldeko bailara ezkutu askok lorratz toponimiko bitxiak biltzen dituzte.

Horien guztien bitartez, XV. mendera arte Errioxako mendialdean eus-

kara erabiltzeko joera zegoela ikus daiteke. Ondare historiko garrantzitsu horietako batzuei jarraituz gure txangorako bidarriak aukeratu ditugu.

### Gizakiak gutxi zapaldutako lurra

Aski ahaztutako ingurua izan da Errioxako hego-mendebaldeko mendialdea, eski pista bat alde batera, gizakiaren joan-etorriak aztarna handia utzi ez duen leku eder asko biltzen dituen. Arandio edo Demanda izenaz ezaguna den eskualdea gutxi populatuta dago, eta nekazal ingurua da nagusi. Paisaia ikusgarri bezain aberatsak ditu, eta euskal toponimia nonahi agertzen da.

Errioxa eta Burgos banatzen dituen mendialde liluragarri horretan eguna pasatzeko txangoa proposatuko dugu beraz. Ojacastron hasita eta Amunartia, Balgañon, Zorrakin eta Ezkarai herrietatik igaroz, bizikletaz nahiz oinez egin daiteke hamahiru kilometroko ibilaldia.

### Oia Castro

Historialarien artean adostasun osoa egon ez arren, herri izen honek, *ogga* zein *oia* grafiekin idatzia, basoarekin zerikusirik duen lekua izendatzen du askoren ustez. *Castro* hitzak latinezko jatorria dauka eta gotorlekua izendatzeko erabiltzen zuten erromatarrek.

Bertako biztanle euskaldunek eza gutzen den gure hizkuntzaren aldeko lehen forua izan zuten. Gaztelako Fernando III.a Santua erregeak Ojacastroko herriari 1100. urtearen bueltan eman zion foru hori, hangoei euskaraz hitz egiteko eta ulertuak izateko eskubidea aitortuz: “... *esto es por fazanya que el Alcalde de Oia-Castro si le demandase ome de fuera de la Villa o de la Villa que el recudiese en Vascuence*”.

Bere garaian hamabik osatzen bazuten ere, egun bost gunetan banatzen da herria. Inguruan biztanlerik gabeko etxadi asko topa ditzakegu, euskal oihartzunak dakarzkiguten



Goian, Hiru Iturrietako Andraren eliza eta behean, ur-jauzia Masoga errekan. Aurreko orrialdeko argazkian Amunartia herrian gaudela adierazten digun harri gaineko inskripzioa ageri da.

### Balgañon eta Zorrakin

Balgañon herriak inguruko mendirik altuenetakoak dauzka inguruan, 2.000 metroraino iristen direnak, eta gure nekeari amaiera emateko leku egokia izan daiteke. Bazkaltzeko eta deskantsurako herri polita da. Hala ere, gogotsu jarraituz gero, Zorrakinetik atera eta Santa Barbara mendira igo zaitezke, Oja eta Celoria bailaren panoramika liluragarria baitago. Zure esku, aukera. ■

izen eta guzti: Amunartia, Ulizarna, Zabarrula... eta Laminiturri. Kondaira zahar batek ematen dio izena iturri horri. Maritxipia edo San Quilez izena duen mendiaren magalean aurkituko dugu, Masoga erreken gainean eta herritik kilometro eta erdira edo. Leku horretan, hegazti hankak zituen emakumea agertzen omen zitzaizen herriko biztanleei.

Geografiari erreparatuz, Errioxako hego-mendebaldeko herri hau 750 metroko altueran dago. Horregatik eta eguraldiaren hezetasunagatik, hosto zabaleko zuhaitzen basoak gailen dira mendi magaletan; pagadiak, ameztiak eta pinuz birlandatutako eremuak ikusiko ditugu. Mendi eta lepo gainetan ordea, basoa bukatu eta elorri tartekatutako inguru zabal eta berdeak dira nagusi.

### Bide hasiera

Herriko enparantzan kokatuz, eliza aldera abiatu behar gara. Hura atzean utzi eta aurrera jarraituko dugu, nekazal bide zabal batetik maldan gora. Masoga erreka ezkerrean bide-lagun dugula, pare bat kilometro egin eta Amunartia herria azkar ikusiko dugu, harri batean idatzita dagoen izenak erakutsiko digunez.

Bi leporan artean dagoen lekua izendatzen du Amunartia izenak. Gaur egun zortzi bat etxek irauten dute zutik, gehienak abeltzaintzarako erabiliak, beste batzuk erleek egindako ezti jasotzeko.

Amunartian buelta erdi eman eta atzera egingo dugu etorritako bidetik. Erreka zeharkatu eta beste aldean daukagun magaletik igo behar dugu. Txangoko maldarik gogorrena da. Pagadia atzean utziz, goiko lepura igoko gara. Hura atzean utzita, bigarren lepo batean bidea banatu egingo da; guk eskuma aldera joko dugu. Maldan gora hoge minutuz arituz, tontor txo batera helduko gara, eta bertatik nekazal bide zabala ikusiko dugu jaitzierari ekiteko.

Bailaraz aldatuz, Ciloriara igaro gara dagoeneko. Gure joanean, abereentzako ate metalikoa gainditu eta pinudi dotorea izango dugu ikusgai eskumako aldean. Ezkerrekoan, erreka. Balgañon herrira heltzeko bide horri jarraitzea baino ez dugu egin behar. Burgosetik datorren LR-111 errepidearekin topo egin eta XII. mendeko Hiru Iturrietako Andraren eliza erromanikoa ikus dezakegu. Bertan mendiko ur garbi goxoa dasta daiteke hiru tutuko iturrian.

